

B2 maila

Entzumena

EREDUA: **1**

ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposatutako denbora
Entzumena	10	20	25 minutu inguru



ENTZUMENA

Ondoren, hiru testu entzungo dituzu. Testuak **bi aldiz** entzungo dituzu.

Egitekoa: Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

*Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko duzu. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.*

1. TESTUA: Basurdeak

Orain, **minutu inguru** duzu **lehen testuari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko. 0 galdera adibidea da.

Adb.: 0.- Zer gertatu da Hong Kong hirian?

- a. *Izurritea zabaldu da basurdeen artean.*
- b. *Basurdeak ugaritu dira.*
- c. *Basurdeak bedeinkatu dituzte.*

1.- Zer dio esatariak Hong Kong-eko parlamentuari buruz?

- a. Hartu dituen neurriek kritika gogorak izan dituela.
- b. Hartutako neurrietako batzuk eraginkorrak izan direla.
- c. Ez duela argi nola jokatu.

2.- Nolakoa da Hong Kong hiria, Gipuzkoarekin alderatuta?

- a. Gipuzkoa baino handiagoa da.
- b. Gipuzkoa baino txikiagoa da.
- c. Gipuzkoak adina metro koadro du.

3.- Zergatik utzi behar izan dituzte bertan behera hegaldi batzuk?

- a. Basurdeak aireportuetan sartzen direlako.
- b. Basurdeek zaborra eramaten dutelako aireportuetara.
- c. Bidaiariak erasotzen dituztelako.

4.- Zer dio Juanjo San Miguelek unibertsitatean gertatutakoaz?

- a. Kezkagarria dela.
- b. Lasaigarria dela.
- c. Goraipatzekoa dela.

5.- Zer dio basurdeak biztanlerik gabeko uharteetara eramateko proposamenaz? ‘

- a. Neurri egokia iruditzen zaiola.
- b. Ez litzatekeela eraginkorra izango.
- c. Igerilari bikainak direnekin bakarrik balioko lukeela.

6.- Zer gertatu da basurdeak urrutiko lurraldeetara bidalita?

- a. Basurde-kopurua gutxitzen hasi da.
- b. Animalien aldeko taldeek neurri horrekiko desadostasuna adierazi dute.
- c. Arazoak antzera jarraitzen du.



ENTZUMENA

2. TESTUA: Memeak

Orain, **minutu inguru** duzu **bigarren testuari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko. 0 galdera adibidea da.

Adb.: 0.- Zer dio esatariak “meme” hitzari buruz?

- a. *Pertsona xelebrea batengandik jaso duela.*
- b. *Hitz bitxia dela.*
- c. *Aspaldi ikasi duela hitz hori.*

1.- Esatariak kalean ikasitakoaren arabera, zer da *memea*?

- a. Sarean hedatzen dituzten kontu barregarriak.
- b. Ahoz aho azkar zabaltzen den txantxa bat.
- c. Animalien irudi barregarriak.

2.- Nondik dator *meme* hitza?

- a. Sare sozialetatik.
- b. Interneteko dibulgatzaile batek asmatu zuen.
- c. Zientzia-liburu batetik.

3.- Zer egin zuen Richard Dawkins eboluzio-gaian adituak?

- a. Eboluzioa ezohiko ikuspegi batetik aztertu zuen.
- b. Geneen eboluzioaz idatzi zuen.
- c. Eboluzioaren teoriaren kritika egin zuen.

4.- R. Dawkinsen definizioaren arabera, zer da *meme* bat?

- a. Kultur unitate-multzo bat.
- b. Informazio genetiko txikiena.
- c. Informazio-unitate txiki bat.

5.- Zergatik aukeratu zuen Dawkinsek *meme* hitza?

- a. “Gene” hitzaren antzeko soinua duelako.
- b. “Gene” hitzaren esanahi bera duelako.
- c. Ingeleseko “gene” hitzaren itzulpena delako.

6.- Nola iritsi da *meme* hitza kaleko hizkuntzara?

- a. Sare sozialek adostuta.
- b. Berez, modu naturalean.
- c. Dawkinsek berak bultzatuta.

7.- Zergatik dago pozik esataria?

- a. Hitz berriak konbinatu daitezkeelako.
- b. Dibulgatzaileei esker hitz berriak zabaltzen direlako.
- c. Dibulgatzaileek hitz berriak asmatzen dituztelako.

ENTZUMENA

3. TESTUA: Kiva programa

Orain, **minutu inguru** duzu **hirugarren testuari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko. 0 galdera adibidea da.

Adb.: 0.- Zenbat hurrek jasaten dute eskola jazarpena estatu espainiarrean?

- a. Eguneko zazpi umek.
- b. Erdiek baino gehiagok.
- c. 7 urteko ume gehienek.

1.- Zein fasetan dago Kiva programa Finlandian?

- a. Diseinatzen ari dira.
- b. Oraintxe hasiko dira lantzen.
- c. Jadanik garatu dute.

2.- Zergatik aukeratu du Ikastolen Elkarteak Finlandiako eredia?

- a. Europan bakarra delako.
- b. Europan onenen artean dagoelako.
- c. Europako onena delako.

3.- Elkarrizketatuaren iritziz, finlandiarrak irakaskuntza alorrean sistematikoak izatea...

- a. zalantzazkoa da.
- b. arriskutsua izan daiteke.
- c. garrantzitsua da.

4.- EAEn eta Nafarroan...

- a. Espainian baino jazarpen-kasu gehiago daude.
- b. Espainian adina jazarpen-kasu dago eskolan.
- c. Espainian baino jazarpen-kasu gutxiago daude.

5. Zer da garrantzitsuena ikasleei begira?

- a. Lanerako aplikazio berriak erabiltzea.
- b. Material ugari eta askotarikoa erabiltzea.
- c. Ikasleekin egingo den lan-mota.

6.- Nork hartuko du parte sortuko duten lehenengo lantaldean?

- a. Ikastola batzuetako irakasle guztiek.
- b. Parte hartzeko eskaera egiten duten irakasleek.
- c. Berrogeita hamabi ikastolako guraso guztiek.

7.- Zein izango da azken taldeko eginkizun nagusia?

- a. Eskoletako ikasle guztiei prestakuntza berezia ematea.
- b. Gurasoen prestakuntza bideratzea.
- c. Koordinazio-lana.